

HORIZONTE EUROPAKO *LUMP SUM* MODALITATERAKO SARRERA

EMAN IZENA



DATAK ETA ORDUTEGIA	Asteartea, martxoak 10. 9:00etatik 14:00etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Laida Bidea 203, Zamudio, Bizkaia. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.
IRAUPENA	5 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileentzat soilik: • Horizonte Europarako I+G+Bko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenentzat (zehazki, <i>Lump Sum</i> modalitateko topic-ak dituztenentzat). • Horizonte Europako programetan I+G+B proiektuak aurkezten, prestatzen eta kudeatzen eskarmentua dutenentzat. * Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- *Lump Sum* finantzaketa-moduarekin lan egiten hasteko lehen urratsak eta aurrekontua ezartzeko xehetasunak ezagutzea.
- *Lump Sum* bidezko proposamen bat prestatzeko funtsezko ezaugarriak, ebaluazioa eta dirulaguntzen kudeaketa ezagutzea.
- Finantzaketa-modu hau definitzen eta justifikatzen ikastea, kostuen zenbatespenak emanez proiektuaren kudeaketan.





PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

1. Zergatik erabiltzen da Horizonte Europan *Lump Sum* finantzazio-modua?
2. Nola funtzionatzen du finantzazio-modu honek eta proposamen bat idazteko kontuan hartu beharreko xehetasunak.
3. Nola lortu administrazio- eta finantza-akatsak murriztea *Lump Sum* finantzazio-moduaren bidez.
4. Zergatik lor daitezke programan sartzeko erraztasunak *Lump Sum* bidez, batez ere erakunde txikienentzako -sarritan ez baitute esperientziarik eta gaitasunik kostuei buruzko arau konplexuei aurre egiteko-.

NOREKIN



**JAVIER MEDINA
ANTÓN**

Qi EUROPEko CEO-a

Ekonomialaria, finantzetako espezialitatea. Negozio Energetikoetako eta PDGko masterra, IESE Business Schoolen. Madrilgo Ekonomisten Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Erkidegoko enpresa-mentore ziurtatua eta Europako Batzordeko Women Leadership programako mentorea. 1995 urtetik geroztik, bere lanbide karrera garatu du negozio-eredu berrien diseinu eta garapen estrategikoan (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioak, errentagarritasunak eta kostuak, *seed & startup* kapitala, *private equity*, *venture capital*, lehiakortasuna eta produktibitatea), teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+B proiektuak (teknologiaren brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, DFC eta *Venture Capital Method* balorazioa, egituraketa, negozioazioa eta salmenta/aliantzak), bai eta I+G+B proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatzea ere, eta negozio berriak garatzea (merkatua erakartzea, dibertsifikatzea, hazkundera eta nazioartekotzea) ingurune digital/teknologiko/industrialean, berrikuntzan eta produktu eta zerbitzu teknologiko berrien garapenean erantzukizun zuzena dutenetan.